

## Goiak eskultura berria du



**G**oia pintorearen omenez, eskultura berria jarri da kultur etxe aurreko plazatxoan, lehengoa zegoen toki berean. Dakizuenez, Francisco de Goia margolaria Mantxola baserriko jatorrikoa zen. Hori gogorazteko, 80ko hamarkadaz gero “busto” edo buru bat zegoen Mandio aurrean. Dotore-dotorea ez zela iritzi, eta azken herri-bileran eskultura zaharra kentzeko kon-

trako iritziarik ez zegoela kontuan edukita, Joxe Mari Telleria herritar eta artistak egindako eskultura berria jarri da. Eskultura alde guztietatik irakur daiteke eta goiko aldean bi letra ditu: Z eta G, Zerain eta Goia irudikatzen ditu. Guztira 3 metroko altuera du eta 2.000 kilo pisatzen ditu. “Busto” zaharra Mantxola aurrean jarriko da, Goia margolariaren jatorriko baserrian.

## Ganaduak partzonerian

**H**erriko ganaduzaleek Gipuzkoako eta Arabako partzonerian ganaduak eduki nahi badituzte, udaletxean eman behar dute izena. Datorren urtean, 2009an, partzoneriko herri-lurretan ganadua erabili nahi dutenek abenduaren 19a baino lehen eman behar dute izena.

Foru Aldundiak gogorarazten duenez, izena eman gabe ganaduak herri-larreetan erabiltzeak dirulaguntzak galtzea ekar lezake.

Izena emateko asmoa dutenek hainbat dokumentu eraman behar dituzte udaletxera. Lehenengo aldia dutenek honakoak aurkeztu behar dituzte:

- Nekazaritza Ustiakuntzako txartelaren kopia.
- NAN kopia.
- Ganaduaren identifikazio agiria.
- Larreetara igoko den ganadu kopurua.



Aurrez ere partzonerian ganaduak erabiltzen badira:

- Larreetara igoko den ganadu kopurua.
- Abereen identifikazio agiria.

## Herri-argazki artxiboa egiteko bilera

Zeraingo herriko argazkiak bildu eta artxibatzeke asmoa aspaldikoa da herrian; baina orain arte, gauza bat edo bestea tarteko, ez da egin. Orain, ordea, asmo hori martxan jarrita da eta herritar denen laguntza beharrezkoa izango da.

Alde batetik, herriarekin zerikusia eduki dezaketen argazkiak dituzten guztiei, Udalari denbora batez argazkiak uzteko eskatuko zaie. Argazki horiek eskaneatu ondoren, ordenagailuan gordeko dira. Bestetik, argazkiak bildu eta antolatzeke lanerako, lan-talde batzuk sortzeke asmoa dago. Lan dezentea dago egiteko, baina guztien artean, errazagoa izango da. Proiektu honetan parte hartu nahi duten guztiei dei egiten zaie azaroaren 20an, osteguna, iluntzeko 7etan kultur etxean egingo den bilera parte har dezaten.

## Sukaldeko olio biltzeko edukiontzi berria martxan dago



Sukaldeko olioaren biltzeko asmoarekin, edukiontzi berezia jarri da autobus geltokiaren ondoan. Hemendik aurrera, olio erabilia jasotzeko furgoneta ez da etorriko eta olio edukiontzi horretan utzi behar da.

Sukaldeko olio erabilia bakarrik bota daiteke eta beti ontzietan gordeta eta ondo itxita utzi behar da, ahal bada plastikozko ontzietan. Olio hori biodiesela egiteko erabiltzeko da birziklatu ondoren.

## Gipuzkoako bola eta toka eguna Zerainen jokatu da abenduaren 8an

Urtero egiten den Gipuzkoako bola eta toka eguna Zerainen egingo da aurten, abenduaren 8an. Goizeko 9etatik 11etara, bola txapelketa jokatu da Liztormendi bolatokian eta toka txapelketa ere egingo da. Goizeko 11etan meza izango da. Ondoren, eguerdiko 14etan, bazkaria egingo dute parte hartzaile guztiek Lierniko Mujika jatetxean.

Urtero, bola eta toka egunean, pertsona batzuk omentzen dituzte. Aurten, Patxi Arrondo eta Juan Intxausti bolariak eta Jose Antonio Santos tokalaria omenduko dituzte. Festan parte hartu nahi dutenek abenduaren 2a baino lehen eman behar dute izena Luis Aizpeoleari (943801682) edo Miguel Burugaini (943550436) deituta.





## Unada, unara, unaa

**H**itzak baino gehiago lanbideak, tresnak eta produktuak ari dira galtzen: askotan esaten dugu hori. Garai bateko lanbideak, tresnak eta produktuak galdu ahala, horiei dagozkien hitzak ere bai. Gauzak galtzen dira lehenik, eta hitzak gero; ez alderantziz. Hori da legea, orain arte ikusi ditugun kasuetan.

Beti ez da ordea horrela izaten. Zenbaitetan, galtzen ari den hitzaren iturrian ez dago galduz doan edo galdu berria den "gauza" bat. Beste mekanismo batek eragin ohi du kasu horietan. Beste "zerbaitek" eragiten du, alegia, ordura arte hitzetik hortzera ibilitako terminoaren gainbehera: "bestelako" ibilera horren adibide argia dugu gaurkoa.

Asko entzundako hitza da *unada*, Zerainen. Hemen bakarrik ez: hemendik hasi eta Bizkai aldera nahiko ezaguna izana da, itxuraz, *unada* edo, nahiago baduzue, *unara* hitza. Esan-esan, *unada* baino maizago *unara* esaten omen da Zerainen: hori da Elenaren iritzia, batzuei eta besteiei galdetu ondoan. Oso litekeena da: garai bateko *ondade* gaur egun *ondare* esaten dugun moduan, eta *iruditu* esateko zenbaitek *iruritu* esaten duen bezala, antzera gertatzen da *unada* horrekin ere: zeraindar askok eta beste hainbatek *unara* esaten du. Hori bakarrik ez: hitzaren ebakera *unaa* egiten duenik ere bada tartean. Ikus Kandido Izagirreraren testigantza: *unáatan: "a veces, a ratos"*.

Galtzen ari da *unara* hori Zerainen. Halako itxura hartzen dio, behintzat, Elenak. Zeraindar gehienek dakite, jakin, *unara* horrek zer esan nahi duen. Erabili, ordea, adin batetik beherakoek apenas erabiltzen duten. Beste hitzetan esanik, edade batetik gorakoek bakarrik erabiltzen dute *unara*. Non dago hitza erabiltzen duten eta ez duten zeraindaren arteko adin-muga? 30 edo 35 urteren jira-bueltan? Baliteke hortik oso urruti ez ibiltzea, Elenak egindako galdeketa-txoaren argitan.

Zer esan nahi du *unada*, *unara* edo *unaa* horrek? Puntu interesgarria da hori: oraingoan ez gaude lanbide, tresna edo produktu material baten

aurrean. Kontzeptu abstraktua du hitz horrek bere altzoan: leku-denborazko segmentazio-adiera eskaintzen du *unada* hitzak. Lekuzko edo denborazko *continuum* etengabearen altzotan azpimultzo mugatua adierazten du eta, horrenbestez, *continuum* horren segmentu eten edo diskretua determinatzen. Segmentu diskretua, baina kontestualki aldakorra. Hots, abstrakzio-maila ohargarriko kontzeptua. Balio semantiko kontestualizatzaile handiko terminoa beraz. Hori eta horrenbestez galtzen utzi behar ez genukeena. Hizkera landu, jaso eta formalizatuan jardun behar dugun esparru, harreman-sare eta situazioetan behar-beharrezkoak dira horrelako elementuak, eta lehendik ere ez gaude horrelakoetan sobran.

Non erabili izan da orain arte? Hiztegiak zer dioen ikusi aurretik, gogora dezagun hainbaten testigantza pertsonala. Jakoba Errekandok esana izan behar du inoiz, Zerainen bakarrik entzuten duen hitza dela *unara* hori. Beterritik ikusita, kontua ez da batere harritzekoa. Donostiako eta inguruko euskaldunok ez dugu, izan ere, horrelakorik entzun izan etxean, familian edo lagunartean. Liburuko hitza izan da *unada* hori, gutako gehienontzat. Zerainen konturatu nintzen ni ere, halako batean, normal-normal esaten zenutela bertan jaiotakook *unara*, *unada* edo *unaa*. Hitz hori ez da hortaz Beterrikoa.

Urola aldekoa ere ez. Bertsolariak genituen bart arratsean Zerainen, ardi-afarian: Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua. Sebastiani galdetu dio Elenak, *unarea* zer den ba ote dakien. Ezetz Sebastianek: horrelakorik ez duela Azpeitian entzun; erabili, are gutxiago. *Unea* baietz, baina *unarea* ezetz. Beste horrenbeste, eta oso jakingarria da hori ere, erantzun dio Iñaki Muruak: Gabirian ere ez omen da *unada*, *unara* edo dena delakorik esaten. Hitza ez da beraz Goierriko osokoa, ondotoxoz eremu mugatuagoa baizik. Aizkorpe honetan bakarrik ageri da Goierriin, itxuraz. Ondorioa argia da, aurrez aurreko testigantza horiei hiztegiaren azalpe-

na eransten bazaio. Bizkaierazko hitza da *unada* (baita bere diminutibo *unadatxo*, *unadatxu* ere). Bizkaierazkoa da eta, Bizkaian zein dot-Gipuzkoan (Oñati,..) ongi dokumentatua. Oñati eta Arantzazu aldetik *unada* horren ziri edo puntal moduko bat sartzen da Aizkorpera, Zeraina. Agian Zeraina bakarrik ez. Zegamara ere bai, seguruenik. Segura aldera eta Mutiloara ere bai? Hori ez nenkien, gaur goizera arte. Erantzuna baiezkoa da, Mutiloari dagokionez: Olanoko Joxe Alustizak argitu digu duda.

Gatozen azkeneko puntura. Zergatik ari da *unara* hori galtzen? Esan dugu gorago, kasu atipikoa dela hau. Hemen ezin da lanbide, tresna edo produktu zaharkitu batez hitz egin. Bi motibo posible ikusten ditut nik, galera hori esplikatzeko: euskara batuaren eragina batetik, eskola-munduan izan duen aplikazio mugatua, bestetik. Ikus ditzagun hipotesi biak, labur-labur.

a)Euskara batuaren eragina. Zeraindik ipar ekialdera kokatu izan da nagusiki, azken 40 urtean, euskara baturanzko astinduaren epizentroa: Beterrin. Lapurtera klasikotik datorren ondarean eta Nafarroarekin lotura argia duten autore zaharretan. Hitz hau, berriz, mendebaldekoa da ezer izatekotan. Oñatin eta Bizkai aldean erabiltzen dena: bizkaierazko esparru horretan jaso izan ditu OEH hiztegiak bere testigantzak guztiak.

b)Eskoletan izan duen aplikazio mugatua. Ikasliburugileen artean, hasteko, ez dirudi sarrera handirik izan duenik azken hamarkadotan. Horren eraginez, irakasleek ere *une*, *arlo*, *zonalde*, *aldi*, *epe* eta antzekorik maiz erabiltzen dute baina *unada* ez: azken hau baztertu egin da sarri, beste faboretan.

Hipotesi biak elkarren osagarri dira. Beste zenbait kasutan bezala (gogoratu *emendau* eta *prantau*), aski indar izaten ari dira Zeraingo gazteek *unada*, *unara* edo *unaa* alde batera uzteko. Hala dirudi behintzat.

Mikel Zalbide eta Elena Mendizabal



## Xagu-txoko



Babesetik

URRIA	al	ar	az	og	or	lr	ig
			<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
Euria (l/m)			0	5	12	0	0
C° altuena			17	19	16	13	14
C° baxuena			12	10	9	7	5
	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>
Euria (l/m)	0	12	6	1,5	0	0	0
C° altuena	22	25	18	14	15	23	22
C° baxuena	10	12	11	10	7	15	18
	<b>13</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>19</b>
Euria (l/m)	2	0	0	0	9	0	0
C° altuena	22	25	19	24	19	20	19
C° baxuena	18	17	15	13	14	13	8
	<b>20</b>	<b>21</b>	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>	<b>26</b>
Euria (l/m)	0	16	11	0	0	0	0
C° altuena	20	23	20	12	14	16	18
C° baxuena	15	17	8	6	2	6	6
	<b>27</b>	<b>28</b>	<b>29</b>	<b>30</b>	<b>31</b>		
Euria (l/m)	6	22	19	18	11,5	EURIA: 151 l	
C° altuena	20	15	8	7	10	ALTUENA: 25	
C° baxuena	6	8	4	5	6	BAXUENA: 2	

### Sagar-urte ederra

Benetako udazken giroa utzi digu urriak. Ehiztarien gustuko ez zen izango agian, baina eduki, denetik eduki du urriak. Hego-haize egunak izan dira, ateri eutsitako egun eguzkitsuak ere dezente, tenperaturan freskoak nahiz ia uda girokoak, eta euriari dagokionez berriz, litro ugari bota ditu.

Usotarako agian ez, baina sagar biltzeko urri ederra izan da aurten-go. A zer aberastasuna egon den sagarrondoetan!



Otatza sagardotegia

## Sua eta sustoa Ostatun



Azaroaren 13an, ardi-jatea egitekoak ziren Ostatun. Zorigaiztoko su batek orde, susto ederra eman zien arratsaldean. Azkenean, estintoreei esker, sua kalte handiak egin aurretik itzali zuten; ardi-jatea berriz, albergean egin zen.

### Abenduaren 14an bi koruk abestuko dute Zeraingo elizan

Abenduaren 14an, igandea, bi kontzertu izango dira Zeraingo elizan. Alde batetik, herriko koruak, Uharkak, abestuko du; eta bestetik, Lazkaoko jubilatuen Orobione abesbatza ere kantuan arituko da. Bi kontzertuak, meza ondoren izango dira, eguerdiko 12etan.

Bestetik, Santa Zezilia eguna, musikarien eguna, ospatzeko, Uharka abesbatzakoek azaroaren 21ean afaria egingo dute Ostatun.

### Gazte barrikotea azaroaren 29an

Sagar-urte ona izanik, sagardo-urte onaren zain daude sagardozaletatik. Lanak eginda daude eta hemendik aurrera itzarotea besterik ez dago. Baina bitartean, barrikote ederra antolatu da Zeraingo gazteek sagardo gaztea proba dezaten. Azaroaren 29an, larunbata, egingo da barrikote hori. Joan nahi dutenek Xabi aguazilari jakinarazi.